


ehbildu



EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Maiden Otamendi Tolosa EH Bildu Taldeko legebiltzarkide eta bozeramaileordeak, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, ondorengo GALDERA egiten dio Iñaki Arriola, Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailburuari Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan, alokairuko etxebizitza publikoak inbertsio funtsei eta bankuei irekitzeari buruz.

ZIOA:

Azaroak 23an eginiko 2018-2020 Etxebizitza Plan Zuzendariaren aurkezpenean esandakoen arabera, alokairurako etxebizitza parkearen sustapenerako hainbat ekimen aurreikusten dira, tartean, ekimen pribatua erakartzea (inbertsio funtsak, pentsioak, aseguruak,...) edo/eta finantza erakunde eta finantza arlokoak ez diren erakundeekin hitzarmenak egitea etxebizitzaren lagapenerako.

Aurkezpen horretan esandakoek gure kezka sortu dutenez, EH Bildu legebiltzar-taldeak ondorengo galdera egiten dio Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailburuari Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

AHOZ ERANTZUTEKO GALDERA

Alokairuko etxebizitza parkearen sustapenerako neurri eraginkorra dela iruditzen zaizu alokairuko etxebizitza publikoak inbertsio funtsei eta bankuei irekitzea?

Gasteizen, 2017ko azaroaren 27an

ehbildu



A handwritten signature in black ink, consisting of several fluid, overlapping loops and lines.

Maider Otamendi Tolosa

EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaileordea



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
ITZULPEN ZERBITZUA
SERVICIO DE TRADUCCIONES

7741

A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Maidier Otamendi Tolosa, parlamentaria y portavoz suplente del grupo EH Bildu, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente pregunta al consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, para su respuesta oral en pleno, sobre la apertura de las viviendas públicas de alquiler a los fondos de inversión y a los bancos.

JUSTIFICACIÓN

Según las afirmaciones formuladas en la presentación del Plan Director de Vivienda 2018-2020, realizada el 23 de noviembre, se prevén diversas iniciativas para la promoción del parque de vivienda de alquiler, entre ellas, atraer a la iniciativa privada (fondos de inversión, pensiones, seguros...) y/o suscribir convenios con entidades financieras y no financieras para cesión de viviendas.

Las afirmaciones vertidas en dicha presentación han provocado nuestra preocupación, por lo que el grupo parlamentario EH Bildu formula al consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda la siguiente pregunta para su respuesta oral en pleno:

PREGUNTA PARA SU RESPUESTA ORAL

¿Considera que la apertura de las viviendas públicas de alquiler a los fondos de inversión y a los bancos es una medida eficaz para la promoción del parque de vivienda de alquiler?

Vitoria, 27 de noviembre de 2017

Maidier Otamendi Tolosa

Parlamentaria y portavoz suplente de EH Bildu